

Honako jardueretan izena emateko epea ekainaren 1etik 10era egongo da irekita:

Kadagua Espedizioa ekainaren 23tik 27ra egingo da, eta 13 eta 15 urte bitartekoek har dezakete parte. 40 € balio du.

Gazte Trukea ekainaren 17tik 26ra egingo da eta Portugalera eta Santiagora joango dira. Parte hartzaileek 15 eta 17 urte bitartekoak izan behar dute. 325 € balio du.

ARAUAK

- BEGIren jardueretan parte hartzeagatik kredituak lortu dituzten pertsona guztiek lehentasuna dute jarduera hauetako batean parte hartzeko, baldin eta ezarritako adin-tartean badaude.

- Beste jardueretan lortutako kreditu bakoitzaren truke euro bat ematen zaie eta jardueraren prezioetik kenduko da; beste era batez esanda, pertsona batek 40 kreditu badauzka eta Trukea jardueran parte hartu nahi badu, 285 € ordaindu beharko du.

- Jarduera bakoitzean gehienez 10 plaza daude.

- Kredituak dituzten pertsonekin plaza guztiak ez badira betetzen, beste gazte batzuei utziko zaie parte hartzen.

- Neska eta mutilen kopuruak parekatuta egotea lortu nahi da (5 mutil eta 5 neska jarduera bakoitzean), betiere kontuan hartuz kredituak dituzten pertsonen dutela lehentasuna.

- Krediturik ez duten pertsonekin plazak bete behar izanez gero, gutxiengoa den sexuko pertsonen izango lukete lehentasuna.

- Krediturik ez duten pertsonak zozketa bidez aukeratuko dira, eta, gainera, aurreko urteetan parte hartzeko aukerarik izan ez duten gazteek izango dute lehentasuna.

- 15 urteko gazteek, kredituak eduki arren, bi jardueretako bakar batean parte har dezakete. Soil-soilik plaza guztiak beteko ez balira, parte hartu ahal izango lukete 2 jardueretan.

- Parte hartzaileek eta guraso edo tutoreek 2 jarduera horien aurkezpenera joan behar dute. Ekainaren 11n egingo da Kultur Etxean.

19:30ean, Kadagua Espedizioari buruzko informazio -hitzaldia.

20:30ean, Gazte Trukeari buruzko informazio-hitzaldia.